OIARTZUNGO UDALA

| ATARIKO TITULUA | TÍTULO PRELIMINAR |
| --- | --- |
| **1. artikulua. Nortasun ezaugarriak**<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren babesean sortutako irakaskuntza artistikoko eskola da (Dekretu horrek arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Dantza Eskolen sorrera eta funtzionamendua). | **Artículo 1. Señas de identidad**<br>La OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA es un Centro Educativo de enseñanza artística creado al amparo del Decreto 64/2024, del 21 de mayo por el que se regula la creación y funcionamiento de las Escuelas de Música y Danza en la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| **2. artikulua. Helbidea**<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAREN egoitza nagusia Madalensoro plaza 1ean izango da, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa).<br>Udalak espazio horren erabilera bermatuko du, Musika Eskolaren behar pedagogiko, artistiko eta antolaketa-beharretara egokitzeko, eskolako espazioak emakume eta haur guztientzat seguruak eta irisgarriak direla bermatuz. | **Artículo 2. Domicilio y Razón social**<br>La sede principal de la ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA DE OIARTZUN se ubicará en Plaza Madalensoro 1, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa).<br>El Ayuntamiento garantizará el uso de este espacio a las necesidades pedagógicas, artísticas y organizativas de la Escuela, garantizando que los espacios de la misma sean seguros y accesibles para todas las mujeres, las niñas y los niños. |
| **3. artikulua. Helburuak**<br>Araudi honen helburua da OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAko antolaketa eta barne funtzionamendua arautzea genero ikuspegitik eta indarkeria matxistarik gabe.<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAren xede nagusia musikaren arloan Oiartzunen dagoen tradizioari eta eskaera sozialari erantzutea izango da, hainbat espezialitateetan adin guztietako pertsonei bideratutako irakaskuntza ez-arautua ikuspegi hezkidetzailearekin eskainiz<br>Legeria horretan oinarrituz, hauexek dira eskolaren helburu nagusiak:<br>a) Oiartzunen musikaren arloan dagoen eskaera sozial anitzari erantzuna ematea. Adin eta ibilbide mota ezberdinak dituzten errealitateetara egokituz, genero rol eta sexu estereotipoak alde batera utzita.<br>b) Herriko musika eta kantu ekosistema sustatu eta indartzea, herriko musika eragileekin harremanak mantenduz eta herriko ekimen publikoetan parte hartuz.<br>c) Eskolaren jardueretan ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea eta aldi berean, gainontzeko herritarrekin harremana bultzatzea.<br>d) Irakaskuntzaren programazioan ikasle | **Artículo 3. Objetivos**<br>El presente Reglamento tiene por objeto regular la organización y el funcionamiento interno de la OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA con perspectiva de género y libre de violencias machistas.<br>La ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA DE OIARTZUN tiene como objetivo principal dar respuesta a la tradición y a la demanda social existente en el ámbito de la música en Oiartzun, ofreciendo una enseñanza no reglada con perspectiva coeducadora dirigida a personas de todas las edades en diferentes especialidades.<br>Basándose en la citada legislación, los objetivos generales de este centro son:<br>a) Responder a la diversa demanda social existente en el ámbito musical en Oiartzun, adaptándose a las diferentes realidades según la edad y el recorrido de las personas, al margen de roles de género y estereotipos sexuales<br>b) Fomentar y fortalecer el ecosistema musical y de canto del pueblo, manteniendo relaciones con las agentes y los agentes musicales locales y participando en iniciativas públicas del municipio.<br>c) Impulsar la participación activa del alumnado en las actividades de la escuela, fomentando al mismo tiempo la |

| | |
|---|---|
| bakoitzaren interes, dedikazio eta ikasketa-erritmora egokitzea, ikasleen motibazioa eta zaletasuna sustatzea ardatz hartuta, beti ere genero ikuspegia txertatzea bermatuta.<br>e) Musika alorrean eta beste diziplina artistikoei dagokienez diziplinartekotasuna sustatzea eskaintza ez-iraunkorraren bitartez.<br>f) Irakaskuntzaren eta langileen jardueraren oinarrian ikasleen sormena eta irudimena landu eta sustatzea.<br>g) Irakaskuntza inklusiboak eta berdintasunean oinarritutakoak bermatzea, inolako salbuespenik gabe pertsona guztiek musika ikasketak egin ahal izan ditzaten, horretarako ikuspegi hezkidetzailetik lan eginaz.<br>h) Kantua eta Herri musika sustatzea, tokiko tradizio eta ondarea mantendu eta balioan jartzeko, genero ikuspegitik, herri nortasunean duen eragina kontuan hartuta. Zentzu honetan, euskal kulturgintzaren transmisioa bermatzea.<br>i) Banakako hezkuntza alde batera utzi gabe musika taldean ikasteari lehentasuna ematea, musika talde eta konjuntoak indartu eta sustatzeko.<br>j) Musika hezkuntzaren eskaintzak irekitasuna eta malgutasuna izatea oinarri, herriko beharretara egokituz eta eskaintza ez-iraunkor anitza eskainiz.<br>k) Estilo anitzetako kontzertu eta kultur emanaldietara joateko gogoa piztea eta izpiritu kritikoa bultzatzea.<br>l) Hala nahi duten pertsonei, irakaskuntza arauturako bidea erraztea. Gaitasun eta bokazio artistikoa duten ikasleak orientatzea eta ondorengo ikasketak -profesionalak eta goi-mailakoak- egiteko duten bidean laguntzea.<br>m) Hezkuntza orokorreko ikastetxeekin harremanak izatea, bertan eskaintzen den musika hezkuntzarekin loturak egiteko eta elkarlanak sustatzeko.<br>n) Euskal Herriko musika-hezkuntzaren ekosistema osatzen duten eragile eta hezkuntza zentroekiko komunikazioa eta etengabeko koordinazioa sustatzea. | relación con el resto de la ciudadanía.<br>d) Adaptar la programación didáctica a los intereses, dedicación y ritmo de aprendizaje de cada alumna y alumno, fomentando su motivación y afición por la música como eje principal, garantizando siempre la incorporación de la perspectiva de género.<br>e) Promover la interdisciplinariedad en el ámbito musical y en relación con otras disciplinas artísticas, mediante una oferta no permanente.<br>f) Trabajar y fomentar la creatividad e imaginación del alumnado como base de la enseñanza y de la actividad del personal docente.<br>g) Garantizar una enseñanza inclusiva y basada en la igualdad, para que todas las personas puedan acceder a la educación musical sin excepción, trabajando para ello desde una perspectiva coeducativa.<br>h) Fomentar el canto y la música popular, con el objetivo de conservar y poner en valor la tradición y el patrimonio local, teniendo en cuenta su influencia en la identidad del pueblo y la perspectiva d genero. En este sentido, garantizar la transmisión de la cultura vasca.<br>i) Dar prioridad al aprendizaje musical en grupo, sin dejar de lado la educación individual, con el fin de reforzar y fomentar los grupos y conjuntos musicales.<br>j) Basar la oferta educativa musical en la apertura y flexibilidad, adaptándola a las necesidades del municipio y ofreciendo una oferta no permanente y diversa.<br>k) Despertar el interés por asistir a conciertos y espectáculos culturales de diversos estilos, fomentando al mismo tiempo el espíritu crítico.<br>l) Facilitar el acceso a la enseñanza reglada a las personas que así lo deseen, orientando al alumnado con capacidades y vocación artística y acompañándolo en su camino hacia estudios posteriores —profesionales y superiores—.<br>m) Mantener relaciones con los centros de educación general, estableciendo vínculos con la enseñanza musical que se ofrece en ellos y fomentando la colaboración.<br>n) Impulsar la comunicación y coordinación continua con los y las agentes y centros |

| | |
|---|---|
| o) Irakasleen eta ikastetxeko profesionalen etengabeko hobekuntza eta eguneratzea sustatzea, musika irakaskuntza hobetzeko, edukietan hezkidetzaren filosofia zeharka barneratzeaz gainera, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak bermatuta. | educativos que forman parte del ecosistema de la educación musical en Euskal Herria.<br>o) Fomentar la mejora y actualización continua del profesorado y del personal del centro, con el objetivo de mejorar la enseñanza musical, además de integrar la filosofía coeducativa de forma transversal en los contenidos, garantizando cursos específicos sobre coeducación. |
| **I . LEHENENGO TITULUA: HEZKUNTZA-KOMUNITATEA**<br><br>**4. artikulua. Kideak**<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA pertsonek osatutako hezkuntza-komunitate baten elkarrekintzan oinarritzen da; pertsona horiek hezkuntza-ekintza hezkidetzaile batean inplikatzen dira prestakuntza-jarduera batzuen bidez, helburu berak lortu nahian eta printzipio pedagogiko berak partekatuz. Hezkuntza-komunitate hori osatzen dute eskolako ikasle guztiek, adingabekoen guraso edo tutoreek, irakasleek, zuzendaritzak eta eskolako administrazioko langileek.<br><br>Hezkuntza-komunitateko kide guztiek Eskolako hezkuntza proiektua eta barne araudi hau ezagutu eta errespetatu beharko dute, eta beren jarduerak haren araberakoak izan beharko dira, betiere pertsona horien eskubide eta askatasunak murriztu gabe.<br><br>**5. artikulua. Eskubideak**<br>Honako eskubide hauek dituzte hezkuntza-komunitateko kideek:<br>a. Beren eskubideak, eta osotasun zein duintasun pertsonala errespetatuak izan daitezela, bai eta, berariaz, beraien datu pertsonalak babestu daitezela (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).<br>b. Eskolako hezkuntza proiektua eta barne araudia ezagutzea.<br>c. Eskolako funtzionamenduan eta bizitzan parte hartzea, araudi honetan eta eskolako hezkuntza proiektuan xedatutakoa betez.<br>d. Idatziz egindako eskaerak, | **I . TÍTULO PRIMERO : LA COMUNIDAD EDUCATIVA**<br><br>**Artículo 4. Personas integrantes**<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA tiene la razón de su existencia en la interrelación de una comunidad educativa integrada por el conjunto de personas que, persiguiendo unos mismos objetivos mediante una serie de actividades formativas se implican en una acción educativa coeducadora, compartiendo unos mismos principios pedagógicos. Esta comunidad educativa está compuesta por todos los alumnos y las alumnas del centro, padres, madres o tutoras y tutores de las alumnas y alumnos menores de edad, así como por los profesores y las profesoras, la dirección y el personal de administración del centro.<br>Todas las personas integrantes de la comunidad educativa deben conocer y respetar el proyecto educativo de centro y este reglamento de régimen interno, al que habrán de adecuar, sin merma de los derechos y libertades que le son propias, sus actuaciones.<br><br>**Artículo 5. Derechos**<br>Las personas miembros de la comunidad educativa tienen derecho a:<br>a. Ser respetadas en sus derechos, integridad y dignidad personal, así como, de forma específica, en la protección de sus datos de carácter personal (Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales).<br>b. Conocer el proyecto educativo del centro y el reglamento de régimen interno.<br>c. Participar en el funcionamiento y en la vida del centro, de conformidad con lo dispuesto en el presente reglamento y en el Proyecto Educativo del Centro. |

| | |
|---|---|
| iradokizunak eta kexak aurkeztea, horiek aztertu eta irtenbide eman diezaieten; bai eta Eskolako Zuzendaritzari erreklamazioa egitea, beren eskubideak urratu direla uste duten kasuetan.<br>e. Araudi honetan jaso gabeko eskubideak egikaritzea, eta Eskolako hezkuntza proiektuan nahiz indarrean dagoen legerian aitortutakoak ere bai. | d. Presentar peticiones, sugerencias y quejas, formuladas por escrito para su estudio y solución, así como reclamar ante la dirección del centro en aquellos casos en los que hayan podido sentir vulnerados sus derechos.<br>e. Ejercer todos aquellos derechos no contemplados en el presente reglamento y reconocidos en proyecto educativo de centro y en la legislación vigente. |
| **6. artikulua. Betebeharrak.**<br>Hezkuntza-komunitateko kideek honako betebehar hauek dituzte:<br>a. Ikasle, guraso, irakasle, Eskolako Zuzendaritza eta administrazioko langileen eskubideak errespetatzea.<br>b. Eskolako hezkuntza proiektua eta barne araudia errespetatu eta betetzea.<br>c. Eskolako jarduerak garatzen laguntzea eta jarduera horiek ezagutzea, eskumen eta gaitasunen arabera.<br>d. Barne araudi honek, Eskolako hezkuntza proiektuak eta Eskolako Zuzendaritzak une bakoitzean erabakitako araudi nahiz ebazpenak bete eta aplikatzetik eratorritako betebehar guztiak. | **Artículo 6. Deberes.**<br>Las personas miembros de la comunidad educativa están obligadas a:<br>a. Respetar los derechos de las alumnas y los alumnos, de las madres y los padres, de las profesoras y los profesores, dirección del centro y personal de administración.<br>b. Respetar y cumplir el proyecto educativo y el reglamento de régimen interno del centro.<br>c. Participar en el desarrollo de las actividades del centro, en función de sus conocimientos, competencias y capacidades.<br>d. Todas aquellas obligaciones que se deriven del cumplimiento y aplicación de este reglamento de régimen interno, del proyecto educativo del centro, así como de las normativas y resoluciones que la dirección del centro determine en cada momento. |
| **1. I. KAPITULUA: IKASLEAK** | **1. CAPÍTULO I: EL ALUMNADO** |
| **1.1. LEHENENGO ATALA: XEDAPEN OROKORRAK**<br>**7. artikulua.**<br>Eskolaren helburu nagusia da oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan eta tolerantzian nahiz askatasunaren egikaritzean oinarritutako prestakuntza eskaintzea, bizikidetzako printzipio orokorren barnean. | **1.1. SECCIÓN PRIMERA: DISPOSICIÓN ES GENERALES**<br>**Artículo 7.**<br>La formación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios generales de convivencia es el objetivo primordial del centro. |
| **8. artikulua.**<br>Ikasle guztiek oinarrizko eskubide eta betebeharrak dituzte. Bereizketa bakarrak dira adinagatik eta ikasten ari diren ikasgaiei dagozkien arrazoiengatik egindakoak. | **Artículo 8.**<br>Todas las alumnas y todos los alumnos tienen los mismos derechos y deberes básicos sin más distinciones que las derivadas de su edad y de las asignaturas que se encuentren cursando. |
| **9. artikulua.**<br>Ikasleen eskubide eta betebeharrak egikarituko dira heziketa- eskubidea | **Artículo 9.**<br>El ejercicio de los derechos y deberes del alumnado se realiza en el marco de los fines |

arautzeari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 2. artikuluaren, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen 1. eta 2. artikuluak esleitutako hezkuntza jardueraren helburuen esparruan.

**10. artikulua.**
Hezkuntza administrazioak eta Eskolako gobernu organoek, beren eskumenen esparruan, ikasleen eskubide eta betebeharrak zuzen eta egoki egikaritzen direla zainduko dute.

## 1.2. BIGARREN ATALA: IKASLEEN ESKUBIDEAK

**11. Artikulua.**
Ikasleek beren nortasunaren garapena erabat ziurtatuko duen prestakuntza jasotzeko eskubidea dute, Eskolako hezkuntza proiektuarekin eta barne araudiarekin bat etorriz. Eskubide horrek zera dakar:

a) Oinarrizko eskubide eta askatasunekiko errespetuan, berdintasun-printzipioetan eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako prestakuntza jasotzea.
b) Errespetuzko, lankidetzako eta bizikidetza positiboko jarrerak garatzea hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.
c) Kalitateko arte-prestakuntza izatea, musika-, adierazpen- eta sormen-gaitasunak garatzen laguntzeko.
d) Bere musika-, ahots- eta instrumentu-gaitasunak garatzea, arte-adierazpen aske, kritiko eta pertsonala sustatuz.

**12. artikulua.**
Ikasle guztiek zenbait hezkuntza-mailatan aritzeko aukera berak izateko eskubidea dute. Muga bakarrak dira adinari, ikasgaiak probestuko gaitasunari edo ikasketetarako ikasleen gaitasunari dagozkionak.

**13. artikulua.**
Ikasleek eskubidea dute beren eskola-errendimendua erabateko objektibotasunez ebaluatua izan dadin, eta horrek honako hau dakar:

a. Ebaluazio prozesua gauzatzea ikasten ari den ikasgaiei dagozkien eskolako hezkuntza proiektuan, ikasketa planean eta programazio didaktikoan ezarritako

que a la actividad educativa atribuye el artículo 2 de la ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del derecho a la educación y los artículos 1 y 2 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

**Artículo 10.**
La administración educativa y los órganos de gobierno del centro en el ámbito de sus respectivas competencias velarán por el correcto ejercicio de los derechos y deberes del alumnado.

## 1.2. SECCIÓN SEGUNDA: DERECHOS DEL ALUMNADO

**Artículo 11.**
El alumnado tiene derecho a recibir una formación que asegure el pleno desarrollo de su personalidad de acuerdo con el proyecto educativo de centro y el reglamento de régimen interno. Este derecho incluye:

a) Recibir una formación basada en el respeto a los derechos y libertades fundamentales, en los principios de igualdad y respeto a la diversidad.
b) Desarrollar actitudes de respeto, cooperación y convivencia positiva con el resto de la comunidad educativa.
c) Acceder a una formación artística de calidad que favorezca el desarrollo de sus capacidades musicales, expresivas y creativas.
d) Desarrollar sus capacidades musicales, vocales e instrumentales, fomentando una expresión artística libre, crítica y personal.

**Artículo 12.**
Todo el alumnado tiene derecho a las mismas oportunidades de acceso a los diferentes niveles educativos, sin más limitaciones que las derivadas de su edad y capacidad de aprovechamiento o de sus aptitudes para el estudio.

**Artículo 13.**
El alumnado tiene derecho a que su rendimiento escolar sea evaluado con plena objetividad, lo que implica que:

a. Se les aplique el proceso de evaluación de acuerdo con los criterios establecidos en el proyecto educativo de centro, el plan de estudios del centro y la programación

| | |
|---|---|
| irizpideen arabera.<br>b. Ikasturte hasieran jakitea zeintzuk diren ebaluatzeko eta sustatzeko irizpideak.<br>c. Ikasleen guraso edo legezko ordezkariek argibideak eskatu ahal izatea irakasleei edo Eskolako Zuzendaritzari, ikaslearen jarduera akademiko edo jokabideen kalifikazioei eta ebaluazioari buruz.<br><br>**14. artikulua.**<br>Ikasle guztiek eskola eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute beren garapen pertsonal eta sozial handiena lortzeko, beren gaitasun, asmo eta interesen arabera eta genero ikuspegia aintzat hartuta; horretarako, tutore baten laguntza izango dute.<br><br>**15. artikulua.**<br>Ikasle guztiek eskubidea dute beren jarduera akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan gauzatzeko, Eskolan aplikagarri den lege esparruaren barnean.<br><br>**16. artikulua.**<br>Ikasleek eskubidea dute matrikula formalizatu aurretik barne araudiari, hezkuntza proiektuari, Eskolako bertako metodologiari, baliabideei eta ikasleak jarraitu beharreko ikasketa planari buruzko informazioa jasotzeko.<br><br>Halaber, eskubidea dute gaitasuna eta jokabide kritikoa sustatzeko. Horren bidez, ikasleek beren ikasketak burutuko dituzte askatasun osoz eta araudi honetan jasotako eskubide nahiz betebeharrak errespetatuz.<br><br>**17. artikulua.**<br>Ikasle guztiek beren osotasun fisikoa, morala eta duintasun pertsonala errespetatua izateko eskubidea dute, eta ezingo dute, inolaz ere, tratu iraingarri edo umiliagarririk jaso hezkuntza-komunitateko beste kideren baten aldetik, egoera edozein izanda ere.<br><br>**18. artikulua.**<br><br>Ikasleek eskubidea dute eskola honek haien egoera pertsonal nahiz familiarrari buruzko informazio guztia gordeta izan dezan, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide | didáctica correspondiente a las asignaturas que cursa.<br>b. Conozcan los criterios de evaluación y de promoción a principio de curso.<br>c. Sus madres y padres o representantes legales puedan solicitar aclaraciones por parte del profesorado o de la dirección del centro respecto a las calificaciones y evaluación de sus actividades académicas o comportamientos.<br><br>**Artículo 14.**<br>Todo el alumnado tiene derecho a recibir orientación escolar y profesional para conseguir el máximo desarrollo personal, social según sus capacidades, aspiraciones e intereses, desde la perspectiva de género, contando para ello con el apoyo de un tutor o una tutora.<br><br>**Artículo 15.**<br>Todo el alumnado tiene derecho a que su actividad académica se desarrolle en las debidas condiciones de seguridad e higiene, dentro del marco legal de aplicación en el centro.<br><br>**Artículo 16.**<br>Las alumnas y los alumnos tienen derecho a la información, antes de formalizar la matrícula, sobre el reglamento de régimen interno, el proyecto educativo, los recursos metodológicos propios del centro y el plan de estudios que el alumnado ha de seguir.<br><br>Asimismo, el alumnado tiene derecho al fomento de la capacidad y actitud crítica que le posibilite la realización de sus estudios en plena libertad y de acuerdo con los derechos y deberes contemplados en este reglamento.<br><br>**Artículo 17.**<br>Todos los alumnos y las alumnas tienen derecho a que se respete su integridad física, moral y su dignidad personal, no pudiendo ser objeto, en ningún caso, de tratos vejatorios o degradantes por parte de otra persona miembro de la comunidad educativa, sea cual sea su condición.<br><br>**Artículo 18.**<br><br>El alumnado tiene derecho a que el centro guarde reserva sobre toda la información de que disponga sobre sus circunstancias |

| | |
|---|---|
| Digitalak Bermatzekoak xedatu bezalaxe. | personales y familiares según la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. |
| Hala ere, beren karguagatik, lanbideagatik, ogibideagatik edo jardueragatik haurrak edo nerabeak lagundu, zaindu, irakatsi edo babesteko ardura duen profesionalak, eta, horiek gauzatzean, eragindako indarkeria-egoeraren baten berri izan badu, agintaritza eskudunari jakinaraziko dizkio haur edo nerabe bati eragindako indarkeria-egoera ekar dezaketen inguruabarrak edo zantzuak, edo adingabeak babesteko legeek ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea, zentroko protokoloaren jarraibideen arabera. | No obstante, el profesional que por razón de su cargo, profesión, oficio o actividad tengan encomendada la asistencia, el cuidado, la enseñanza o la protección de niños, niñas o adolescentes y, en el ejercicio de las mismas, hayan tenido conocimiento de una situación de violencia ejercida sobre los mismos ~~centro~~ comunicará a la autoridad competente las circunstancias o indicios que se hayan observado y puedan implicar una situación de violencia ejercida sobre una persona menor de edad de niños, niñas o adolescentes o cualquier otro incumplimiento de los deberes establecidos por las leyes de protección de menores de acuerdo con las pautas del protocolo del centro. |
| **19. artikulua.**<br>Ikasketa planen araberako ekintza berriak egitea proposatzeko eskubidea dute ikasle guztiek, baldin eta Eskolako hezkuntza proiektuan eta araudi honetan jasotako helburu akademikoak betetzen badituzte eta Eskolako Zuzendaritzak aurrez baimena eman badu. | **Artículo 19.**<br>Todo el alumnado tiene derecho a proponer la realización de nuevas actividades de acuerdo con los planes de estudio siempre que persigan los objetivos y fines académicos contemplados en el proyecto educativo de centro y en este reglamento y previa autorización de la dirección del Centro. |
| **20. artikulua.**<br>Ikasleek eta, adingabeen kasuan, haien gurasoek edo legezko ordezkariek eskubidea izango dute irakasleekin, tutoreekin edo zehapena ezarri duen ikastetxeko zuzendaritzarekin elkarrizketa pertsonala eskatzeko, egitateei eta hartutako neurriari buruzko informazioa eta argibideak jasotzeko, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera. | **Artículo 20.**<br>El alumnado y, en el caso de menores de edad, sus madres, padres o representantes legales, tendrán derecho a solicitar una entrevista personal con el profesorado, la tutoría o la dirección del centro que haya impuesto una sanción, con el fin de recibir información y aclaraciones sobre los hechos y sobre la medida adoptada, de conformidad con lo establecido en el presente reglamento. |
| **21. artikulua.**<br>Ikasleek eskubidea izango dute Udalak sortzen dituen beka edo laguntza ekonomikoak eskatzeko, baldin eta horiek existitzen badira eta indarrean dagoen araudiaren arabera. | **Artículo 21**.<br>El alumnado podrá solicitar las becas o ayudas económicas que, en su caso, establezca el Ayuntamiento y que se regulen mediante ordenanza. |
| **22. artikulua.**<br>Hezkuntza alorreko kontu orokorrak —arrazoi akademiko, antolakuntzazko edo beste mota bateko arrazoiak— direla eta, Eskolako Zuzendaritzak eskola-ordutegietan aldaketaren bat egitea | **Artículo 22.**<br>Cuando, por cuestiones educativas generales, de orden académico u organizativo o de otra índole, la dirección del centro decidiera una modificación de horarios lectivos, los alumnos y las alumnas afectadas tienen derecho a ser informadas de todos los cambios con |

erabakiko balu, eragindako ikasleek aldaketa guztien berri garaiz izateko eskubidea dute, beren egoera pertsonala ordutegi berriari egokitu ahal izateko, edota, egokitzea ezinezkoa balitz, Eskolan baja eman ahal izateko inolako zigorrik jaso gabe. Hori guztia, araudi honi dagokion kapituluan araututakoa betez eta Eskolako Zuzendaritzak xede horretarako prestatutako arautzean ezarritakoa betez.

### 1.3. HIRUGARREN ATALA: IKALEEN BETEBEHARRAK

**23. artikulua.** Hona hemen ikasleen oinarrizko betebeharrak:

a. Matrikulatuta dagoen ikasgaiaren eskoletara joatea, Eskolako Zuzendaritzak izendatutako ordutegi eta ikasgelan.
b. Adierazitako materiala ekartzea Eskolara, bertako jarduerak behar bezala egiteko.
c. Eskola bakoitzak irauten duen denbora guztian jokabide arretatsua, adeitsua eta parte-hartzailea izatea irakasleak proposatutako jardueretan. Gainera, taldekako eskoletan, irakaslearekin zein taldearekin errespetuz eta arduraz aritzea.
d. Eskolan jorratutako ikasgaiak etxean modu erregular batean ere ikastea, irakasleen gomendioei jarraiki eta ikasleak berak denbora eta ordutegi aldetik duen prestutasunaren arabera.
e. Hezkuntza-komunitateko pertsona guztien kontzientzia askatasuna eta uste pertsonal edo ideologikoak errespetatzea, bai eta haien duintasuna, osotasuna eta intimitaterako eskubidea ere.
f. Hezkuntza-komunitateko kide guztiak errespetatzea, eta bertako inor ez diskriminatzea hala nota honako arrazoiengatik: arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familia-eitea, desgaitasuna, adina, sexu-joera sexu- edo genero-identitatea, genero-adierazpena, landa-eremukoa izatea, migratzailea, errefuxiatua,

suficiente anticipación como para adaptar su situación personal a los nuevos horarios, si ello fuera viable, o darse de baja en el centro sin penalización alguna, de acuerdo a lo regulado en este Reglamento en el capítulo correspondiente y en la regulación que a tal efecto disponga la dirección del centro.

### 1.3. SECCIÓN TERCERA: DEBERES DEL ALUMNADO

**Artículo 23.** Constituyen deberes básicos del alumnado:

a. Asistir a la clase de las materias en las que se encuentre matriculado y en los horarios y aulas designadas por la dirección del centro.
b. Acudir a clase, con el material escolar necesario que se le haya indicado para la correcta realización de las actividades lectivas.
c. Mantener, a lo largo de todo el tiempo que dure cada clase, una actitud atenta, respetuosa y participativa con respecto a las actividades propuestas por el profesorado. Asimismo, mantener una actitud respetuosa y responsable con respecto al profesorado y todas sus compañeras y compañeros, si se tratase de una clase de carácter colectivo.
d. El estudio regular en casa de las materias cursadas, de acuerdo con las recomendaciones del profesorado y según su propia disponibilidad de tiempo y horario.
e. Respetar la libertad de conciencia y las convicciones personales o ideológicas de todas las personas de la comunidad educativa, así como su dignidad, integridad y derecho a la intimidad.
f. Respetar, igualmente, no discriminando a ningún miembro de la comunidad educativa por razón de raza, color, origen étnico o social, lengua, religión, cultura, opiniones políticas o de otro tipo, pertenencia a una minoría nacional, patrimonio, nacimiento, configuración familiar, discapacidad, edad, orientación sexual, identidad sexual o de género, expresión de género, condición rural, situación migratoria, de refugiada, de seropositividad, de monoparentalidad o cualquier otra condición o circunstancia

| | |
|---|---|
| seropositiboa, guraso bakarra izatea edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal, sozial edo administratibo. | personal, social o administrativa. |
| g. Eskolako hezkuntza proiektua ezagutu, errespetatu eta betetzea; araudi honetako arauak bete nahiz betearaztea; eta Eskolako Zuzendaritzak hartutako erabakiak errespetatzea. | g. Conocer, respetar y cumplir el proyecto educativo del centro, así como cumplir y hacer cumplir la normativa contenida en este reglamento, así como las decisiones de la dirección del Centro. |
| h. Eskolako bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzea, eta baita irakaskuntzako jardueren garapen normalean ere. | h. Participar en la vida y funcionamiento del centro, así como en el normal desarrollo de las actividades docentes. |
| i. Eskolak emandako materiala behar bezala erabili, zaindu eta kontserbatzea eskolako jarduerei behar besteko probetxua ateratzeko; laguntzea Eskolako material txiki, ondasun higigarri eta instalazioen (eskola, ikasgelak, korridoreak…) mantentze lanetan; eta horiek guztiak garbi mantentzea. | i. Utilizar correctamente, cuidar y conservar el material que le proporcione el centro para un correcto aprovechamiento de las actividades de la clase, tanto el pequeño material como los bienes muebles y las instalaciones del lugar centro, aulas, pasillos, etc., colaborando también en el mantenimiento y limpieza de las mismas. |
| j. Hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatzea. | j. Respetar las pertenencias del resto de las personas miembros de la comunidad educativa. |
| k. Beste ikaskideei laguntzea, ahal duten neurrian, beren babesa emanez hala egiteko eskatzen dietenean. | k. Ayudar y colaborar, en la medida de sus posibilidades, con otras compañeras y compañeros, mostrándoles su apoyo siempre que así se lo requieran. |
| **24. artikulua.** Ikastea da ikasleen oinarrizko betebeharra, eta ondorengo hauetan zehazten da esplizituki: | **Artículo 24.** El estudio constituye un deber básico del alumnado y se concreta de forma explícita en los siguientes deberes: |
| a. Eskolara garaiz heltzea, eta beren garapen pertsonalera bideratutako jardueretan parte hartzea, Eskolako ikasketa planen eta urteko plangintzaren barnean. | a. Asistir a clase con puntualidad y participar en las actividades orientadas a su desarrollo personal, dentro de los planes de estudios y la planificación anual del Centro. |
| b. Eskolako jarduerak aurrera eramateko onartutako ordutegiak bete eta errespetatzea. | b. Cumplir y respetar los horarios aprobados para el desarrollo de las actividades del Centro. |
| c. Irakasleen jarraibideei kasu egitea ikasketei dagokienez, eta irakasleari dagokion errespetua eta adeitasuna erakustea. | c. Seguir las orientaciones del profesorado respecto de su aprendizaje y mostrarle el debido respeto y consideración. |
| d. Ikaskideen ikasteko eskubidea errespetatzea. | d. Respetar el ejercicio del derecho al estudio de sus compañeros y compañeras. |
| e. Ikasle lanetan jokabide arduratsua erakustea, eta interesa agertzea dagozkion zeregin eta funtzioak egikaritzean. | e. Mostrar una actitud responsable en su trabajo de estudiante, desarrollando el propio trabajo y función con interés. |
| f. Gaitasunaren araberako lan-ohiturak hartzea, ikasketetan aurrera egiteko. | f. Adquirir hábitos de trabajo en orden a su capacitación para la continuidad de sus estudios. |
| g. Errendimendu akademikoaren gutxieneko mailak gainditzeko ahalegina egitea. | g. Esforzarse por superar los niveles mínimos de rendimiento académico. |

| 25. artikulua. | Artículo 25. |
|---|---|
| **25. artikulua.**<br>Ikaskideei dagokienez, ikasleek honelaxe jokatu behar dute:<br>a. Gainontzeko ikaskideak errespetatuko ditu eta haien ongizate fisiko eta emozionala zainduko dute.<br>b. Beste guztien gauzak errespetatuko dituzte.<br>c. Eskolen martxa egokia bermatuko dute.<br>d. Ikaskideekin elkarlanean ariko dira eskolako jardueretan.<br>e. Indarkeriazko jarrerarik ez onartzea eta errespetuzko bizikidetza baketsua lortzen laguntzea.<br>f. Aniztasunaren aurrean errespetua erakutsiko dute, pertsonen arteko desberdintasunak; kulturalak, sozialak, fisikoak, emozionalak, sinesmenetakoak, identitateak edo gaitasun alorrekoak, aitortu, onartu eta balioetsiz, desberdintasun horiek gizartea aberasten dutela ulertuta.<br>g. Ikaskideen ikasteko eskubidea errespetatuko dute. | **Artículo 25.**<br>En relación con sus compañeras y compañeros el alumno y la alumna debe:<br>a. Respetar al resto de compañeros y cuidar su bienestar físico y emocional.<br>b. Respetar todas las pertenencias de las demás personas.<br>c. Garantizar la buena marcha de las clases.<br>d. Colaborar con las compañeras y los compañeros en las actividades escolares.<br>e. No tolerar actitudes violentas y contribuir a una convivencia respetuosa y pacífica.<br>f. Mostrar respeto ante la diversidad: reconociendo, aceptando y valorando las diferencias interpersonales; culturales, sociales, físicas, emocionales, de creencias, identidades o capacidades, entendiendo que dichas diferencias enriquecen a la sociedad.<br>g. Respetar el derecho al estudio de las compañeras y los compañeros. |
| **26. artikulua.**<br>Irakasleei dagokienez, ikasleek honela jokatu behar dute:<br>a. Errespetuzko tratua izan behar dute.<br>b. Elkarrizketarako beti prest agertu behar dira, sortutako gai edo zalantzak argitze aldera.<br>c. Emandako zeregin eta jarduerak beteko dituzte. | **Artículo 26.**<br>En relación con el profesorado el alumnado debe:<br>a. Tener un trato respetuoso.<br>b. Prestarse al diálogo para aclarar las cuestiones que se planteen.<br>c. Realizar las tareas y actividades que se le asignen. |
| **27. artikulua.**<br>Hezkuntza-komunitate guztiarekin eta Eskolarekin, oro har, ikasleek honela jokatu behar dute:<br>a. Jarduerak eta zerbitzuak betetzen dituztenean, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen osotasun fisikoa eta morala, eta haien ondasunak errespetatu beharko dituzte, bai eta Eskolarekin harremana duten pertsona eta erakundeena ere.<br>b. Tratu sozialean zuzen jokatu beharko dute, arreta berezia jarriz hizkuntza zuzen eta egokia erabiltzeari.<br>c. Hezkuntza-komunitateko kide guztien lana eta funtzioa errespetatu beharko dituzte.<br>d. Eskolako eta eskolaz kanpoko | **Artículo 27.**<br>En general, con toda la comunidad educativa y con el centro, el alumnado debe:<br>a. Respetar la integridad física y moral, así como los bienes de las personas que forman la comunidad educativa y de aquellas otras personas e instituciones que se relacionen con el centro con ocasión de la realización de sus actividades y servicios.<br>b. Mostrar corrección en el trato social, en especial, mediante el empleo de un lenguaje correcto y adecuado.<br>c. Respetar el trabajo y función de todas las personas miembros de la comunidad educativa.<br>d. Cooperar en las actividades lectivas y no lectivas.<br>e. Utilizar correctamente el material, el |

OIARTZUNGO UDALA

jardueretan lagundu beharko dute.

e. Materiala, eraikina, altzariak eta instalazioak behar bezala erabili beharko dituzte, haien helburua eta funtzionamenduko arauak betez; eta gune zehatz batera ez sartzeko agindua errespetatu beharko dute.
f. Indarrean dagoen legerian eta erregelamendu honetan hezkuntza-komunitateko kideei ezartzen zaizkien betebeharrak betetzea..
g. Eskolak proposatutako arauak betetzea, arau horiek zehaztu eta publiko egiteko; gainera, indarrean dagoen legeriatik sortutako arau guztiak bete beharko dituzte.
h. Eskolak haientzat emandako ahozko informazio edo informazio dokumental guztia gurasoei jakinaraztea.
i. Instalazio guztietan eta sartzeko kanpoko atean ere ezingo dute erre edo alkoholik edan.

## 1.4. LAUGARREN ATALA : IKASLEAK ONARTU ETA ANTOLATZEA .

### 28. artikulua. Onartzeko eta instrumentua aukeratzeko prozedura

Ikasleen onarpena eta plazen urteko berritzea Eskolako Zuzendaritzaren eskumena izango da, Udalarekin koordinatuta, barne araudian jasotakoa kontutan hartuz.

Araudi honen VI. Tituluan dago jasota ikasleak Eskolan onartzeko eta bertan jarraitzeko prozesuaren bilakaera zehatza.

Halaber, Oiartzungo Udal Musika Eskolan ikasleek ikasketa-espezialitate gisa hautatuko duten instrumentuaren esleipen-prozedura arautzen da, berdintasuna, genero ikuspegia, gardentasuna eta eskolaren antolaketa pedagogikoa bermatuz.

1. Nork egin behar du aukeraketa

Instrumentua aukeratzeko prozedura honako kasuetan aplikatuko da:

a) Lehen aldiz espezialitate instrumentalean sartzen diren ikasleak.
b) Espezialitatea aldatu nahi duten

edificio, mobiliario e instalaciones, conforme a su destino y normas de funcionamiento, así como el respeto a la reserva de acceso a determinadas zonas.

f. Cumplir los deberes que se señalan en la legislación vigente y en el presente reglamento a las personas miembros de la Comunidad Educativa.
g. Cumplir las normas que el centro proponga para concretar éstas y haga públicas, así como cuantas puedan proceder de la legislación vigente.
h. Comunicar a los padres y las madres toda la información verbal o documental que el centro les entregue para ellos y ellas.
i. Abstenerse de fumar o beber alcohol en la totalidad de las instalaciones ni en la puerta exterior de acceso.

## 1.4. SECCIÓN CUARTA: ADMISIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL ALUMNADO.

### Artículo 28. Procedimiento de admisión y para la elección de instrumento

La admisión de alumnas y alumnos y la renovación anual de plazas será competencia de la Dirección de la Escuela, en coordinación con el Ayuntamiento, de acuerdo con lo establecido en la normativa interna.

El desarrollo pormenorizado del proceso de admisión y permanencia en el centro del alumnado queda recogido en el Título VI de este.

Asimismo, se regula el procedimiento mediante el cual el alumnado de la Escuela Municipal de Música de Oiartzun seleccionará la especialidad instrumental, garantizando la igualdad de oportunidades, la perspectiva de género, la transparencia y una organización pedagógica adecuada.

1.Quién debe hacer la elección

El procedimiento de elección del instrumento se aplicará en los siguientes casos:

a) Alumnado que accede por primera vez a una especialidad instrumental.

OIARTZUNGO UDALA

| | |
|---|---|
| ikasleak.<br><br>2. Aukera-zerrenda:<br>Ikasleek edo adingabeen kasuan, haien guraso edo tutoreek hiru instrumentu-aukera adierazi beharko dituzte, lehentasun-ordenean.<br><br>3. Plaza-eskaintza: Zuzendaritzak, Udalarekin koordinatuta, urtero argitaratuko du espezialitate instrumentalen araberako plazen eskaintza, Musika Eskolaren baliabideetara eta hezkuntza-proiektuaren antolaketara egokitua.<br><br>4. Esleipen-irizpideak: Esleipena honako irizpideen arabera egingo da:<br>a) Antzinatasuna Musika Eskolan.<br>b) Talde-oreka eta beharrizan pedagogikoak, espezialitate bakoitzean adin eta gaitasun mailen arteko oreka bermatzeko, tresnak hautatzean estereotipo sexistak ez erreproduzitzeko genero-ikuspegia txertatzea.<br>c) Berdinketa dagoenean, zozketa publikoa egingo da.<br><br>5. Eskaintzako aukerak betetzen ez badira Ikasleak ez badu lortzen adierazitako hiru aukeretako bat, Zuzendaritzak plaza libre duten instrumentuen arteko proposamen alternatiboak egingo dizkio.<br><br>6. Plaza onartzea eta uko egitea<br><br>a) Zuzendaritzak instrumentu-esleipenaren berri emango du datu-babes araudia errespetatuz.<br>b) Ikasleek —edo haien legezko ordezkariek— ezarritako epean plaza onartu beharko dute.<br>c) Uko eginez gero, ikaslea lehentasun-zerrendaren amaieran kokatuko da hurrengo ikasturterako instrumentu-aukeraketari begira, salbu eta arrazoitutako salbuespen pedagogikorik badago.<br><br>7. Instrumentu-aldaketa<br>Ikasle batek instrumentua aldatu nahi badu:<br>a) Gutxienez ikasturte bat egin beharko du aurreko instrumentuan.<br>b) Aldaketarako eskaera prozedura beraren arabera ebatziko da, eta esleipen-irizpide | b) Alumnado que desea cambiar de instrumento.<br><br>2. Lista de preferencias:<br>Las familias o el alumnado mayor de edad deberán indicar tres instrumentos diferentes, ordenados por prioridad.<br><br>3. Oferta de plazas: La Dirección, en coordinación con el Ayuntamiento, publicará anualmente la oferta de plazas disponibles en cada especialidad instrumental, de acuerdo con los recursos del centro y con el proyecto educativo.<br><br>4. Criterios de asignación: la adjudicación de instrumentos se realizará conforme a los siguientes criterios:<br>a) Antigüedad en la Escuela Municipal de Música.<br>b) Equilibrio de grupos y adecuación a las necesidades pedagógicas en de cada especialidad, incluyendo la perspectiva de género para no reproducir estereotipos sexistas en la elección de instrumentos.<br>c) En caso de empate, se realizará un sorteo público.<br><br>5. Si no se obtiene ninguna de las tres opciones. En caso de que el alumno o alumna no obtenga plaza en ninguna de sus tres preferencias, la Dirección ofrecerá instrumentos alternativos con plazas vacantes.<br><br>6. Aceptación o renuncia<br><br>a) La Dirección comunicará las asignaciones respetando la normativa vigente en materia de protección de datos.<br>b) Los alumnos o alumnas o sus representantes legales deberán aceptar la plaza en el plazo establecido.<br>c) En caso de renuncia, el alumno o alumna pasará al último lugar en la lista de elección para el curso siguiente, salvo que existan razones pedagógicas justificadas para no aplicar esta medida.<br><br>7. Cambio de instrumento<br>El alumnado podrá solicitar un cambio de instrumento una vez cursado al menos un año académico en la especialidad anterior. La solicitud será valorada conforme al mismo procedimiento establecido para la elección |

| | |
|---|---|
| berberak aplikatuko dira. | inicial. |
| 8. Salbuespenak eta egokitzapen pedagogikoak Ikastetxeko Zuzendaritzak, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin bat eta Udalarekin koordinatuta, salbuespenezko egokitzapenak edo antolakuntzakoak edo pedagogikoak egin ahal izango ditu, hezkuntza, adina, ikastetxearen antolaketa, ikasleen aniztasunari arreta emateko edo hezkidetzaren ikuspegia txertatzeko, betiere gardentasunaren printzipioak eta ikasleen hezkuntza-interesa bermatuz. | 8. Excepciones y adaptaciones pedagógicas La Dirección del centro, de acuerdo con el Proyecto Educativo del Centro y en coordinación con el Ayuntamiento, podrá introducir ajustes o adaptaciones organizativas o pedagógicas de carácter excepcional cuando así lo aconsejen razones educativas, de edad, de organización del centro, de atención a la diversidad del alumnado, o para incorporar el enfoque coeducativo, garantizando en todo caso los principios de transparencia, y el interés educativo del alumnado. |
| **2. II. KAPITULUA: IRAKASLEAK** | **2. CAPÍTULO II: PROFESORADO** |
| **29. artikulua.** Hautatzea eta onartzea.<br>Eskolako Zuzendaritza da irakasleen hutsuneak betetzeko organo eskuduna. | **Artículo 29.** Selección y admisión.<br>La cobertura de vacantes del profesorado compete a la dirección del centro. |
| **30. artikulua.** Eskubideak.<br>Hona hemen irakasleen eskubideak:<br>a. Batetik, beren kontzientzia askatasuna, sinesmen erlijioso eta ideologia politikoa errespetatua izan dadila; eta bestetik, sinesmen edo konbikzio horiei dagokienez beren intimitatea errespetatzea, Espainiar Estatu, Euskal Autonomia Erkidego eta Oiartzungo udalerriaren beraren esparruan.<br>b. Halaber, beren osotasun fisiko, morala eta duintasun pertsonala errespetatua izan dadila. Ezingo dute, inolaz ere, tratu iraingarri edo umiliagarririk jaso hezkuntza komunitateko beste kideren baten aldetik, egoera edozein izanda ere. | **Artículo 30.** Derechos<br>El profesorado tiene derecho a:<br>a. Que se respete su libertad de conciencia, sus creencias religiosas e ideología política, así como su intimidad en lo referente a tales creencias o convicciones, en el ámbito de lo que es propio e inherente al estado español, la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Territorio Histórico de Gipuzkoa y el municipio de Oiartzun.<br>b. Asimismo, a que se respete su integridad física, moral y su dignidad personal, no pudiendo ser objeto, en ningún caso, de tratos vejatorios o degradantes por parte de otro miembro de la Comunidad Educativa, sea cual sea su condición. |
| **31. artikulua.**<br>Irakasleek eskubidea dute eskolak beren egoera pertsonal nahiz familiarrei buruzko informazio guztia gordeta izan dezan, Datu Pertsonal Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera. | **Artículo 31**.<br>El profesorado tiene derecho a que el centro guarde reserva sobre toda la información de que disponga sobre sus circunstancias personales y familiares según la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. |
| **32. artikulua.**<br>Ekintza berriak egitea proposatzea ikasketa planaren baitan, baldin eta Eskolako hezkuntza proiektuan eta araudi honetan jasotako helburu akademikoak bilatzen badituzte, eta Eskolako Zuzendaritzak aurrez baimena eman ostean. | **Artículo 32.**<br>Proponer la realización de nuevas actividades de acuerdo con los planes de estudio siempre que persigan los objetivos y fines académicos contemplados en el proyecto educativo de centro y en este reglamento y previa |
| **33. artikulua.** | |

Hona hemen irakasleen eskubideak:

a. Beren lanbide-jarduera erosotasun baldintza egokietan egitea: tenperatura, argiztatzea, baliabide materialak, segurtasuna eta higienea. Hori guztia, gainera, Eskolan aplikatu beharreko lege esparruaren eta erakunde titularraren beraren lan-arriskuen prebentzio planarekin bat etorrita.
b. Eskolako hezkuntza proiektua, barne araudia, Eskolako proiektu kurrikularra, ikasketa plana eta irakatsitako ikasgaiaren programazio didaktikoa ezagutzea.
c. Etengabeko prestakuntza jasotzea genero ikuspegitik.
d. Eskolako Zuzendaritzak hartutako erabakiei buruzko informazio zehatza eskatzea.
e. Beste irakasleekin biltzea, Eskolan programatutako jarduerak eten gabe.
f. Eskolako baliabide materialak eta instalazioak erabiltzea hezkuntza helburuetarako, horien erabilera arautzen duten arauak betez. Erabilerarako jarraibide horiek araudi honetan zehazten dira, finkatutako xede nahiz helburu akademikoak lortzeko (araudi honetan eta Eskolako hezkuntza komunitatean finkatutakoak).

**34. artikulua.** Betebeharrak.

Irakasleek honako betebehar hauek dituzte:

a. Hezkuntza funtzioa betetzea Eskolako hezkuntza proiektu hezkidetzailea eta barne araudia errespetatuta.
b. Lanaldia betetzea.
c. Eskola denborarako nahiz eskola kanporako finkatutako lan ordutegia betetzea, irakaskuntza betebeharrak betez.
d. Eskolako Zuzendaritzaren bilera guztietan parte hartzea.
e. Metodologia Eskolak erabakitako ildo pedagogikoaren arabera garatzea.
f. Funtzio ebaluatzailea egikaritzea dagokion programazio didaktikoan ezarritako irizpideen arabera, ikasturte eta ikasgaiaren arabera egokiena den prozeduraren bidez eta Eskolako hezkuntza proiektua kontuan hartuz une oro.
g. Parte hartze duten organoen bilkuretan era aktiboan esku hartzea.

autorización de la dirección del centro.

**Artículo 33.**

El profesorado tiene derecho a:

a. Desarrollar su actividad profesional en las debidas condiciones de comodidad: temperatura, iluminación, recursos materiales, seguridad e higiene, dentro del marco legal de aplicación en el centro y de acuerdo con el plan de prevención de riesgos laborales del centro.
b. Conocer el proyecto educativo del centro, el reglamento de régimen Interno, el proyecto curricular del centro, así como el plan de estudios y la programación didáctica de la asignatura que imparte.
c. Su formación permanente con perspectiva de genero.
d. Solicitar información puntual sobre los acuerdos tomados por la dirección del centro.
e. Reunirse con el resto del profesorado siempre y cuando no se interfiera la actividad programada en el centro.
f. Utilizar los recursos materiales e instalaciones del centro como para los fines educativos de conformidad con las normas reguladoras de su uso, especificadas en este reglamento para la consecución de los fines y objetivos académicos fijados en este reglamento y en el proyecto educativo del centro.

**Artículo 34.** Deberes

El profesorado está obligado a:

a. Desempeñar su función educativa de acuerdo con el proyecto educativo coeducativo y el reglamento de régimen interno del centro.
b. Cumplir con su jornada laboral.
c. Cumplir con el horario laboral establecido tanto en su tiempo lectivo como en el no lectivo, cumpliendo con sus obligaciones docentes.
d. Asistir a todas las reuniones que la dirección del centro convoque.
e. Desarrollar su metodología de acuerdo con la línea pedagógica que el centro determine.
f. Ejercer su función evaluadora de acuerdo con los criterios establecidos en la programación didáctica correspondiente, mediante el procedimiento más adecuado en función del curso y asignatura, teniendo siempre en cuenta el proyecto educativo del centro.
g. Participar activamente en las reuniones de los

| | |
|---|---|
| | órganos de los que forme parte. |
| h. Iritzi askatasuna errespetatzea eta lankideekin, ikasleekin eta gurasoekin tratu egokia izatea. | h. Respetar la libertad de opinión y mantener un trato correcto con las compañeras y los compañeros, las alumnas y los alumnos y las madres y los padres. |
Se promoverá la normalización del euskera en la actividad de OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA, de acuerdo con la política lingüística del Ayuntamiento de Oiartzun y la normativa lingüística vigente.
Todas las actividades de la Escuela de Música se regirán por los principios de fomento del uso del euskera en las actividades educativas y culturales, garantía de los derechos lingüísticos de la ciudadanía, fortalecimiento de la transmisión de la cultura vasca y el uso de una comunicación inclusiva y no sexista.

**Artículo 123. Lengua de enseñanza**
Se fomentará el uso del euskera en las actividades docentes de la Escuela de Música.
Las actividades docentes se desarrollarán, en la medida de lo posible, en euskera, teniendo en cuenta la competencia lingüística y la situación sociolingüística del alumnado.
Teniendo en cuenta la diversidad del alumnado, se podrán utilizar otras lenguas cuando sea

| | |
|---|---|
| erabili ahal izango dira, betiere euskararen presentzia eta erabilera bermatuz. | necesario, garantizando en todo caso la presencia y el uso del euskera. |
| **124. artikulua. Lan eta barne funtzionamenduko hizkuntza**<br>Musika Eskolako barne komunikazioan euskara izango da lehentasunezko lan hizkuntza.<br>Irakasleen arteko komunikazioan, barne dokumentazioan eta koordinazio pedagogikoan euskararen erabilera sustatuko da.<br>Eskolako dokumentazio pedagogiko eta administratiboan euskararen erabilera lehenetsiko da. | **Artículo 124. Lenguaje de trabajo y funcionamiento interno**<br>En la comunicación interna de la Escuela el euskera será la lengua de trabajo preferente.<br>Se fomentará el uso del euskera en la comunicación, documentación interna y coordinación pedagógica entre el profesorado.<br>En la documentación pedagógica y administrativa de la escuela se priorizará el uso del euskera. |
| **125. artikulua. Herritarren hizkuntza eskubideak**<br>Musika Eskolarekin harremana duten herritarrek euskara edo gaztelania erabiltzeko eskubidea izango dute.<br>Musika Eskolak bermatuko du herritarrei ematen zaien arreta bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko aukera.<br>Eskolak neurriak hartuko ditu euskarazko arreta bermatzeko. | **Artículo 125. Derechos lingüísticos de la ciudadanía**<br>La ciudadanía relacionada con la Escuela tendrá derecho a utilizar el euskera o el castellano.<br>La Escuela de Música garantizará la atención a la ciudadanía en las dos lenguas oficiales.<br>La escuela tomará medidas para garantizar la atención en euskera. |
| **126. artikulua. Hizkuntza paisaia**<br>Musika Eskolaren instalazioetan eta jardueretan agertzen den hizkuntza paisaian euskara izango da hizkuntza nagusia.<br>Kartelak, oharrak, errotuluak eta bestelako informazio elementuak euskaraz idatziko dira.<br>Hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen direnean, euskarari lehentasuna emango zaio kokapenean, tamainan eta ikusgarritasunean. | **Artículo 126. Paisaje lingüístico**<br>La lengua que aparece en las instalaciones y actividades de la Escuela será el euskera como lengua principal en el paisaje. Los carteles, notas, rótulos y otros elementos informativos se redactarán en euskera. Cuando se coloquen en más de una lengua, se dará prioridad al euskera en ubicación, tamaño y visibilidad. |
| **127. artikulua. Euskararen eta euskal kulturaren sustapena**<br>Musika Eskolak euskal musikaren eta euskal kulturaren transmisioa sustatuko du bere jarduera pedagogiko eta kulturaletan.<br>Horretarako, programazioan kontuan hartuko dira: euskal musikaren errepertorioa, euskal musika tradizioa, euskal kulturarekin lotutako jarduerak.<br>Eskolak herriko kultur eragileekin lankidetza sustatuko du euskal kulturaren transmisioa indartzeko. | **Artículo 127. Promoción del euskera y de la cultura vasca**<br><br>La Escuela promoverá la transmisión de la música y la cultura vasca en sus actividades pedagógicas y culturales.<br>Para ello, en la programación se tendrán en cuenta: repertorio de música vasca, tradición musical vasca, actividades relacionadas con la cultura vasca.<br>Se promoverá la colaboración con los agentes culturales locales para potenciar la transmisión de la cultura vasca. |
| **128. artikulua. Hizkera inklusiboa eta irudi ez-sexista**<br>Musika Eskolako komunikazio, dokumentazio eta material guztietan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da, emakumeen eta gizonen | **Artículo 128. Lenguaje inclusivo e imagen no sexista**<br>En todas las comunicaciones, documentación y materiales de la Escuela se utilizará un lenguaje inclusivo y no sexista para promover la igualdad |

| | |
|---|---|
| berdintasuna sustatzeko eta estereotipo sexistak saihesteko.<br>Halaber, eskolako irudi, material pedagogiko eta komunikazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da.<br><br>Musika Eskolako jardueretan genero estereotipoak saihestuko dira, eta berdintasuna sustatzen duten irizpideak aplikatuko dira.<br><br>**129. artikulua. Hizkuntza irizpideen aplikazioa eta koordinazioa**<br>Musika Eskolak kapitulu honetan ezarritako hizkuntza irizpideak bere jarduera guztietan aplikatuko ditu, Oiartzungo Udalaren hizkuntza politikarekin eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.<br><br>Horretarako, Musika Eskolak udaleko hizkuntza normalizaziorako sailarekin koordinazioa sustatuko du, euskararen erabilera eta presentzia indartzeko, bereziki hezkuntza jardueretan, komunikazioan eta herritarrei zuzendutako zerbitzuetan.<br><br>Halaber, Musika Eskolak euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartu ahal izango ditu bere jardueretan, herriko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta.<br><br>**AZKEN XEDAPENAK**<br><br>**Lehenengoa. Araudiaren Aldaketa**<br>Araudi hau aldatzea Udalaren eskumena da.<br><br>**Bigarrena. Indarrean sartzea**<br>Araudi hau eskola ikasturtea hasten denean sartuko da indarrean, edo, hala badagokio, Eskolako titularrak hura onartzen duenean.<br><br>**Hirugarrena. Eskola egutegia**<br>Ikasturtea Hezkuntza Sailak eta Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluaren irizpideen arabera finkatuko da, jai ofizialak kontuan hartuz, eta dagokion hezkuntza aginpideak eskola egunak ez izatea erabakitako egunak kontuan hartuz. Kasu horietan, jaiegun horiekin egokitutako eskolak ez dira berreskuragarriak izango.<br><br>**Laugarrena. Talde elkartekideak**<br>Araudi honi Udal Musika Eskolaren barnean izan daitezkeen taldeen berezitasunak gehituko zaizkie, arautzea ondorengo | de mujeres y hombres y evitar estereotipos sexistas.<br>Asimismo, se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres en las imágenes, materiales pedagógicos y comunicaciones escolares.<br>En las actividades de Musika Eskola se evitarán estereotipos de género y se aplicarán criterios que promuevan la igualdad.<br><br>**Artículo 129. Aplicación de los criterios lingüísticos y coordinación**<br>La Escuela Municipal de Música aplicará en el desarrollo de todas sus actividades los criterios lingüísticos establecidos en este capítulo, de conformidad con la política lingüística del Ayuntamiento de Oiartzun y con la normativa lingüística vigente.<br>A tal efecto, la Escuela de Música promoverá la coordinación con el departamento de normalización lingüística municipal, con el fin de reforzar la presencia y el uso del euskera, especialmente en las actividades educativas, en la comunicación y en los servicios dirigidos a la ciudadanía.<br>Asimismo, la Escuela de Música podrá adoptar medidas destinadas a fomentar el uso del euskera en sus actividades, teniendo en cuenta el contexto sociolingüístico del municipio.<br><br>**DISPOSICIONES FINALES**<br><br>**Primera. Modificación del Reglamento.**<br>La modificación del presente Reglamento compete al Ayuntamiento.<br>**Segunda. Entrada en vigor.**<br>El presente Reglamento entrará en vigor al inicio del Curso escolar o en su caso, en el momento de su aprobación por parte del titular del Centro.<br>**Tercera. Calendario Escolar**<br>El curso escolar se establecerá según los criterios de la Consejería de Educación y el Consejo Escolar de la Comunidad Autónoma a la que pertenezca la escuela, teniendo en cuenta las fiestas de carácter oficial, así como los días determinados como no lectivos por la autoridad educativa respectiva. En estos casos, las clases que coincidan con estos días festivos no serán recuperables a ningún efecto.<br>**Cuarta. Agrupaciones asociadas**<br>Al presente reglamento se le añaden las particularidades de las distintas agrupaciones que pudieran formar parte de la Escuela |

| | |
|---|---|
| alderdietan osatuz:<br><br>MUSIKA TRESNEN TALDEAK, ABESBATZAK<br>OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAko kide diren musika tresnen taldeak eta abesbatzak Udalarekin ezarritako berariazko arautzeak zuzenduko ditu, elkarte modura dituzten estatutuak alde batera utzita, baldin eta elkarte modura eratuta badaude.<br>Arautze horren barnean, Udalarekin eta Musika Eskolarekin dauden urteko konpromisoak zehaztuko dira, bai eta konpromiso horien aurrekontuaren kuantifikazioa eta elkarrekin egin beharreko jarduera guztien urteko programazio orokorra ere.<br><br>**ERANSKINA. ESKOLA KONTSEILUA**<br><br>**1. artikulua.- OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAren Eskola Kontseilua: Definizioa, Araudia**<br>a) Eskola Kontseilua hezkuntza-komunitateko kideen parte-hartze organoa da. Autonomia erkidego bakoitzak bere aplikaziorako titulartasun publikoko musika eskoletan ezarritako legeriekin bat etorriz arautuko da beti.<br>b) Haren osaera eskolako titularrak erabakiko du, Musika Eskolaren barnean. Bere kasuan, enpresa kudeatzailea eratzeko prozedura egikaritzeaz eta bertako kideak hautatzeaz arduratuko da.<br>c) Musika Eskolako organo horrek, Musika Eskola izateak duen garrantzia eta idiosinkrasiagatik, aholkularitza eta informazioko funtzioak izango ditu Musika Eskola osatzen duten hezkuntza-komunitateko sektore guztietarako. Eta eskola jarduera nahiz eskolaz kanpoko jarduera egiteko garrantzitsuak diren alderdi guztiena izango da.<br>**2. artikulua- Eskola Kontseiluaren izaera eta osaera.**<br>Honako irizpide hauek ezartzen dira aplikatzeko arau orokor modura: Osaera:<br>• Eskolako zuzendaria. Kontseiluko presidentea izango da. | Municipal de Música, complementando la regulación en los siguientes aspectos:<br><br>AGRUPACIONES INSTRUMENTALES, CORALES<br>Las distintas agrupaciones instrumentales, corales asociadas a la OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA se regirán por la regulación específica que establezcan con el Ayuntamiento, al margen de los estatutos que posean como asociación, si están constituidas como tal.<br>Dentro de esta regulación aparecerán especificados los compromisos anuales con el Ayuntamiento y con la Escuela de Música, así como la cuantificación presupuestaria de esos compromisos y una Programación General Anual de todas las actividades a realizar conjuntamente.<br><br>**ANEXO.- CONSEJO ESCOLAR**<br><br>**Artículo 1.- El Consejo Escolar en OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA: Definición, Regulación**<br>a) El Consejo Escolar es el órgano de participación de las diferentes personas integrantes de la comunidad educativa. Su regulación estará siempre de acuerdo con las legislaciones que cada Comunidad Autónoma establezca para su aplicación en las escuelas de música de titularidad pública.<br>b) Será Titular del Centro quien decida su constitución en el seno de la Escuela de Música. En su caso, la Empresa Gestora se encargará de ejecutar el procedimiento de constitución y elección de sus integrantes.<br>c) Este órgano de la Escuela de Música, por la especial entidad e idiosincrasia de lo que es una escuela de música, tendrá funciones de carácter consultivo e informativo para todos los sectores de la comunidad educativa que forman la escuela de música. Y lo será de todos aquellos aspectos que sean de importancia para el desarrollo de la actividad lectiva como no lectiva.<br>**Artículo 2-** Carácter y composición del Consejo Escolar.<br>Se establece como norma general de aplicación, los siguientes criterios: Composición:<br>• La directora o director del Centro, que será su presidenta o presidente. |

| | |
|---|---|
| • Klaustroak hautatutako bi irakasle. Haietako batek, zuzendariak izendatuta, idazkari lanetan jardungo du, eta Kontseiluan hitza eta botoa izango du.<br>• Gurasoen eta Eskolako ikasleen bost ordezkari (adinagatik legeriak agindutako murrizketekin), Eskola Kontseiluko osaeraren % 50aren baliokide dena.<br>• Udal ordezkari bat.<br>• Musika Eskolako zuzendari-kudeatzailea. Hala badagokio, bere ordezkaritza hark izendatutakoa.<br>• Eskola Kontseilua osatzen duten ikasleen gurasoen ordezkarietatik, haietako bat, hala badagokio, Eskolako ikasleen guraso elkarteak izendatuko du, halakorik balego (legearen arabera eratuta).<br>• Ikasleek Eskola Kontseiluan hitzarekin eta botoarekin ordezkatuta izango dira, baldin eta 12 urte baino gehiago badituzte eta Eskolako hezkuntza proiektuak ezarritako baldintzak betetzen badituzte. | • Dos d o c e n t e s , elegidos por el claustro. Uno o una ellas, designada por dirección, actuará como secretario o secretaria, con voz y voto en el Consejo.<br>• Cinco representantes en total de padres, madres de alumnado y de los propios alumnos y alumnas del centro (con las restricciones que por edad dispone la legislación) equivalente al 50% de la composición del Consejo Escolar.<br>• Una persona representante municipal.<br>• El o la directora -Gerente de la escuela de música. En su caso, podrá delegar su representación.<br>• De las personas representantes de los padres y las madres de alumnado que componen el Consejo Escolar, se designará uno o una de ellos o, en su caso, por la asociación de padres y madres de alumnado del centro si la hubiera, legalmente constituida.<br>• El alumnado podrá estar representado en el Consejo Escolar con voz y voto, siempre y cuando sean mayores de 12 años y en las condiciones que establezca el Proyecto Educativo del Centro. |
| **3. artikulua.** Eskola Kontseilua hautatu eta berritzea.<br>a) Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo da. Prozedura egiterakoan Musika Eskolako parte-hartze, kontsulta, koordinazio eta erabaki-hartze organoek emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute.<br>b) Eskola Kontseilua erdika berrituko da, txandaka. Haietako bakoitza honako era honetan osatuko da:<br>– Lehenengo erdia: irakasle eta guraso bana.<br>– Bigarren erdia: gainerako irakasleak eta ikasleen gurasoen ordezkariak eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak, hala balegokio.<br>c) Eskola Kontseilua estreinakoz eratzen den eskolak sortu berriak direnean, sektore bakoitzeko kide guztiak aldi bakar batean hautatuko dira. Ordezkatutako sektore bakoitzeko hautesleek beren boto-paperean bete beharreko postuen bezain beste izen | **Artículo 3.** Elección y renovación del Consejo Escolar.<br>a) El procedimiento de elección de las personas integrantes del Consejo Escolar se desarrollará durante el primer trimestre del curso académico. Los órganos de participación, consulta, coordinación y toma de decisiones de la Escuela de Música deberán garantizar en la elaboración del procedimiento una representación equilibrada de mujeres y hombres.<br>b) El Consejo Escolar se renovará por mitades de forma alternativa. Cada una de ellas estará configurada de la siguiente forma:<br>– Primera mitad: un o una docente y un padre y/o madre<br>– Segunda mitad: los restantes profesores y representantes de los padres/madres de alumnos y los representantes del personal de administración y servicios en su caso.<br>c) En el caso de centros de nueva creación en los que se constituya por primera vez el Consejo Escolar, se elegirán todos los miembros de cada sector de una vez. Las personas electoras de cada uno de los |

| | |
|---|---|
| jarri ahalko dituzte, gehienez ere. Eskola Kontseilua osatu ondorengo lehenengo berritze partzialean, artikulu honen bigarren idatz-zatian ezarritako lehenengo erdiari dagozkion postuak hautatuko dira, eta aurreko hautaketan boto gutxien jasotako ordezkariei eragingo die.<br>d) Hezkuntza-komunitateko kideak dagokion sektoreak soilik hautatu ahalko ditu, eta sektore horietako bat ordezkatzeko hautagaiak izan ahalko dute, nahiz eta sektore bat baino gehiagotakoak izan. | sectores representados harán constar en su papeleta, como máximo, tantos nombres como puestos a cubrir. En la primera renovación parcial, posterior a la constitución del consejo escolar, se elegirán los puestos correspondientes a la primera mitad establecida en el apartado dos de este artículo, afectando a aquellas representantes que hubieran obtenido menos votos en la elección anterior.<br>d) Las personas integrantes de la comunidad escolar sólo podrán ser elegidas por el sector correspondiente y podrán ser candidatos o candidatas para la representación de uno sólo de dichos sectores, aunque pertenezcan a más de uno. |
| **4. artikulua.** Eskola Kontseiluan dauden hutsuneak betetzeko prozedura.<br>a) Dagokien berritzea baino lehenagoko ordezkariek organo horretakoa izateko beharrezko baldintzak betetzeari utziko baliote hutsune bat sortuko dute, eta hura hurrengo hautagaiek beteko dute, lortutako boto kopuruaren arabera. Sortutako hutsuneak betetzeko, azken berritze partzialaren zerrenda baliatuko da bete beharreko hutsunea aurreko berritze partzial bati dagokiola kontuan hartu gabe. Hutsunea betetzeko hautagai gehiago izango ez balitz, Eskola Kontseilua hurrengo aldian berriz berritu arte bete gabe geratuko litzateke.<br>b) Bete gabeko hutsuneak hurrengo berritze partzialean egindako hautaketaren bidez beteko dira. Edozein berritze partzialaren aurretik irailetik aurrera sortutako hutsuneak berritze horretan beteko dira, ez aldaketagatik.<br>c) Berritze partzial batean aurreko berritze partzialekoak diren hutsuneak badaude, egungo berritzeko postuak boto gehien jasotako hautagaiekin beteko dira, eta aurreko hutsuneak, berriz, boto gehien jasotako hurrengoekin. | **Artículo 4.** Procedimiento para cubrir vacantes en el Consejo Escolar.<br>a) Aquellos representantes que antes de la renovación que les corresponda, dejarán de cumplir los requisitos necesarios para pertenecer a dicho órgano producirán una vacante que será cubierta por los siguientes candidatos de acuerdo con el número de votos obtenidos. Para la dotación de las vacantes que se produzcan, se utilizará la lista de la última renovación parcial, independientemente de que la vacante a cubrir corresponda a una renovación parcial anterior. En el caso de que no hubiera más candidatos para cubrir la vacante, quedaría sin cubrir hasta la próxima renovación del Consejo Escolar.<br>b) Las vacantes que no se hayan cubierto se dotarán mediante elección en la siguiente renovación parcial. Las vacantes que se produzcan a partir del mes de septiembre anterior a cualquier renovación parcial se cubrirán en dicha renovación y no por sustitución.<br>c) En el caso de que en una renovación parcial haya vacantes que pertenezcan a la renovación parcial anterior, los puestos de la renovación actual se cubrirán con los candidatos más votados y las vacantes de la anterior, con los siguientes en número de votos. |
| **5. artikulua.** Hauteskunde Batzordea.<br>a) Hautatzeko prozedura antolatzeko, Eskolan ondorengo kideek osatutako Hauteskunde Batzordea eratuko da: | **Artículo 5.** Junta electoral.<br>a) A efectos de la organización del procedimiento de elección, se constituirá, en el Centro, una junta electoral compuesta |

| | |
|---|---|
| Eskolako zuzendaria (batzordeburua izango da); irakasle bat eta ikasle baten guraso bat; azken biak hautagaiak izango ez diren Eskola Kontseilua utzitako kideek zozketa bidez hautatuko dituzte. Sortu berriak diren eskoletan, bai eta sektore bat utziko duten kide guztiak hautagaiak diren kasuetan ere, Hauteskunde Batzordeko ordezkariak izendatzeko zozketa egingo da hauteskunde erroldetan izena emandakoen artean.<br>b) Hona hemen Hauteskunde Batzordearen eskumenak:<br>1) Hauteskunde erroldak onartu eta argitaratzea; haien barnean hautetsien izen- abizenak eta NA jasoko dira, alfabetikoki ordenatuta, bai eta irakasleak, ikasleen gurasoak, administrazio nahiz zerbitzuetako langileak eta ikasleak direla ere.<br>2) Hauteskundeen egutegia zehaztea, araudi honen 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.<br>3) Hauteskunde prozesua antolatzea.<br>4) Dauden hautagaitzak onartu eta izendatzea.<br>5) Hauteskunde mahaien eraketa sustatzea.<br>6) Hauteskunde mahaien erabakien aurka aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.<br>7) Hautatutako hautagaiak izendatzea, eta dagozkion aktak administrazioko aginpide eskudunari igortzea. | por los siguientes miembros: El/la directora/a del centro, que será su presidente, un profesor y un padre de alumno, los dos últimos elegidos por sorteo entre los miembros salientes del Consejo Escolar que no vayan a ser candidatos. En los centros de nueva creación, así como en aquellos casos en los que todos los miembros salientes de un sector sean candidatos, el sorteo para designar a los representantes en la junta electoral se realizará entre los inscritos en los respectivos censos electorales.<br>b) Las competencias de la junta electoral son las siguientes:<br>c) Aprobar y publicar los censos electorales, que comprenderán nombre, apellidos y Documento Nacional de Identidad de las personas electoras, ordenadas alfabéticamente, así como su condición de profesorado, persona progenitora de alumnado, personal de administración y servicios y los y las alumnas.<br>d) Concretar el calendario electoral de acuerdo con lo establecido en el artículo 2 de este Reglamento.<br>e) Ordenar el proceso electoral.<br>f) Admitir y proclamar las distintas candidaturas.<br>g) Promover la constitución de las distintas mesas electorales.<br>h) Resolver las reclamaciones presentadas contra las decisiones de las mesas electorales.<br>i) Proclamar las candidaturas elegidas y remitir las correspondientes actas a la autoridad administrativa competente. |
| **6. artikulua.** Izendapenezko postuak betetzeko prozedura.<br>a) Lehenengo eraketan, eta Eskola Kontseiluaren berritze partziala gertatzen bada, Hauteskunde Batzordeak bere ordezkariak izendatzeko eskatuko die Udalari eta ordezkaritza zabaleneko ikasleen guraso elkarteari (legez eratutakoa). | **Artículo 6.** Procedimiento para cubrir los puestos de designación.<br>a) En la primera constitución y, siempre que se produzca una renovación parcial del Consejo Escolar, la junta electoral solicitará la designación de sus representantes al Ayuntamiento y a la asociación de padres/madres de alumnos más representativa, legalmente constituida. |
| **7. artikulua.** Irakasleen ordezkariak hautatzea.<br>a) Eskola Kontseiluko irakasleen ordezkariak Klaustroak hautatuko ditu, haren barnean. Botoa zuzena, sekretua eta | **Articulo 7.** Elección de los representantes del profesorado.<br>a) La representación del profesorado en el Consejo Escolar se elegirá por el claustro |

| | |
|---|---|
| eskuordetu ezina izango da.<br>b) Klaustroko kide guztiak hautetsiak izango dira. Hautagai modura aurkeztutako irakasleak hautatu ahalko dira.<br>c) Zuzendariak klaustrora deituko du, eta bertako gai-zerrendan hautaketa ekitaldia eta hautatutako irakasleen jakinarazpena jasoko dira.<br><br>Klaustroko bileran hauteskunde mahai bat eratuko da. Mahai hori honako hauek osatuko dute: Eskolako zuzendariak (mahaiburua izango da), antzinatasun handieneko irakaslea eta Eskolako antzinatasun gutxienekoa (mahaiko idazkari lanak egingo ditu). Antzinatasun bereko irakasle batzuk egokitzen direnean, mahaian antzinakoen artean adinez nagusiena dena izango da, eta adinez gazteena dena antzinatasun gutxienekoen artean.<br><br>d) Quoruma klaustroko kideen erdia gehi batekoa izango da. Quorumik ez balego, beste deialdi bat egingo da lehenengorako, adierazitakotik handik hogeita lau ordura. Kasu horretan, adierazitako quoruma ez da nahitaezkoa izango.<br><br>e) Irakasle bakoitzak bere boto paperean bete beharreko postu adina izenak jarri ahalko ditu, gehienez ere. Boto gehien jasotako irakasleak hautatuko dira. Lehenengo bozketan dagokion irakasle kopurua hautatzen ez bada, ekitaldi berean behar diren bozketa guztiak egingo dira, kopuru horretara heldu arte.<br><br>f) Zuzendaritzako kargu bat betetzea ez da bateragarria Eskola Kontseiluko irakasleen ordezkari hautetsi izatearekin. Bi izendapen batera egokitzen badira, irakasleak postuetako bat bete beharko du, eta hutsik utzitakoa araudi honetan ezarritako mekanismoekin beteko da. | y en el seno de éste. El voto será directo, secreto y no delegable.<br>b) Serán electores todas las personas integrantes del claustro. Serán elegibles los profesores y las profesoras que hayan presentado candidatura.<br>c) La dirección convocará un claustro, en el que figurará el acto de elección y proclamación del profesorado electos en el orden del día.<br>En la sesión del claustro, se constituirá una mesa electoral. Dicha mesa estará integrada por quien ostente dirección del Centro, que ejercerá la presidencia, el o la profesora de mayor antigüedad y el o la de menor antigüedad en el Centro, que actuará en calidad de secretaría de la mesa. Cuando coincidan varios profesores o profesoras de igual antigüedad formarán parte de la mesa la persona de mayor edad entre los de mayor antigüedad y el o la de menor edad entre las personas de menor antigüedad.<br>d) El quórum será de la mitad más uno de los componentes del claustro. Si no existiera quórum, se efectuará nueva convocatoria veinticuatro horas después de la señalada para la primera. En este caso, no será preceptivo el quórum señalado.<br>e) Cada docente podrá hacer constar en su papeleta, como máximo tanto nombres como puestos a cubrir. Se elegirá al docente con mayor número de votos. Si en la primera votación no hubiese resultado elegido el número de docentes que corresponda, se procederá a realizar en el mismo acto sucesivas votaciones hasta alcanzar dicho número.<br>f) El desempeño de un cargo de dirección se considera incompatible con la condición de representante electo o electa del profesorado en el Consejo Escolar del Centro. En caso de concurrencia de dos designaciones, el o la profesora deberá optar por el desempeño de uno de los puestos, debiendo procederse a cubrir el puesto que deje vacante por los mecanismos previstos en el presente Reglamento. |
| **8. artikulua.** Gurasoen ordezkariak hautatzea.<br>a) Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkaritza haiei edo ikasleen legezko ordezkariei dagokie, Eskolan dauden seme-alaba kopurua edozein izanda ere. Hautatzeko eta hautatua izateko | **Artículo 8.** Elección de las personas representantes de las madres y los padres.<br>a) La representación de los padres y madres en el Consejo Escolar corresponderá a éstos o a los representantes legales del alumnado, sea cual fuere el número de |

| | |
|---|---|
| eskubidea gurasoei dagokie edo, hala badagokio, legezko tutoreei. | hijos e hijas escolarizados en el Centro. El derecho a elegir y ser elegido corresponde al padre y/o a la madre o, en su caso, a los tutores legales. |
| b) Eskolan matrikulatutako ikasleen guraso edo legezko tutoreak hautesleak eta hautagarriak izango dira eta, beraz, erroldan agertu beharko dute. Hauteskunde Batzordeak onartutako hautagaien artean egingo da hautaketa. Legez eratutako ikasleen gurasoen elkarteek bereizitako hautagaitzak aurkeztu ahalko dituzte. | b) Serán personas electoras y personas elegibles todos los padres, las madres o personas tutoras legales de estudiantes que estén matriculados en el Centro y que, por tanto, deberán figurar en el censo. La elección se producirá entre las candidaturas admitidas por la junta. Las asociaciones de padres y o madres de alumnado legalmente constituidas podrán presentar candidaturas diferenciadas. |
| c) Gurasoen ordezkarien hautaketaren aurretik mahaia eratuko da, eta mahaia bozketaren buru jarduteaz, ordena zaintzeaz, boto ematearen garbitasuna babesteaz eta botoen zenbaketaz arduratuko da. | c) La elección de las personas representantes de las madres, los padres, del alumnado estará precedida por la constitución de la mesa encargada de presidir la votación, conservar el orden, velar por la pureza del sufragio y realizar el escrutinio. |
| d) Eskola Kontseilua estreinakoz eratu behar bada, hauteskunde mahaia Eskolako zuzendariak (kontseiluburua izango da) eta zozketaz izendatutako lau gurasok edo legezko tutorek osatuko dute. Gainerako kasuetan, Eskola Kontseilua utzitako ikasleen gurasoen ordezkariek osatuko dute hauteskunde mahaia. Idazkari lanak guraso gazteenen ordezkariak egingo ditu. Hauteskunde batzordeak ordezkoen izendapena aurreikusi beharko du, zozketa bidez izendatutakoak ere. | d) Si el Consejo Escolar se va a constituir por primera vez, la mesa electoral estará integrada por la directora o el director del centro, que actuará de presidente, y cuatro madres, padres o personas tutoras legales designados por sorteo. En el resto de los casos, formarán parte de la mesa electoral las personas representantes de los padres, madres del alumnado en el Consejo Escolar saliente. Actuará de secretario el representante de los padres/madres de menor edad. La junta electoral deberá prever el nombramiento de suplentes, designados también por sorteo. |
| e) Bozketaren ikuskatzaile modura Eskolan matrikulatutako ikasleen guraso edo legezko tutoreek jardun ahalko dute, bertako ikasleen guraso elkarteak proposatuta edo hamar hauteslek babestuta. | e) Podrán actuar como supervisores de la votación los padres, las madres o tutores legales del alumnado matriculados en el Centro propuestos por una asociación de padres y o madres de alumnas y alumnos del mismo o avalados por la firma de diez electores. |
| f) Boto zuzena, sekretua izango da, eta eskuordetu ezin dena. Hautesle bakoitzak bere boto-paperean, gehienez ere, bete beharrezko postuen behar adina izen jarri ahalko ditu, eta NArekin edo baliokidea den beste agiri batekin identifikatuko da. | f) El voto será directo, secreto y no delegable. Cada persona electora podrá hacer constar en su papeleta, como máximo, tantos nombres como puestos a cubrir e identificarse mediante su Documento Nacional de Identidad u otro documento equivalente. |
| g) Ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko, ikasleen gurasoek posta bidezko botoa erabili ahalko dute. Xede horretarako, botoa eskolako hauteskunde mahaira posta ziurtatuz igorri ahalko da, eta gehienez ere hauteskunde prozesua | g) A fin de conseguir la mayor participación posible, padres, madres del alumnado podrán utilizar el voto por correo. A tal efecto, el voto deberá ser enviado a la mesa electoral del Centro por correo certificado, que deberá llegar con un plazo máximo de |

| | |
|---|---|
| egin baino 24 ordu lehenago iritsi beharko da Eskolako zuzendariarentzat bidalitako gutun baten bidez hauteskunde batzordeburu gisa. Posta horrek emandako botoa jaso beharko du, eta NAen edo baliokidea den beste agiri baten fotokopia bat. | 24 horas antes de la realización del proceso electoral mediante una carta dirigida a la dirección del centro en calidad de presidente de la Junta Electoral. Dicho correo deberá contener el voto emitido y una fotocopia del Documento Nacional de Identidad o de un documento acreditativo equivalente. |
| **9. artikulua.** Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria izendatzea. | **Artículo 9.** Elección del representante del personal de administración y servicios. |
| a) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria, talde horretako hautesle bat baino gehiago dagoenean, Eskolan era horretako funtzioak betetzen dituzten langileek hautatuko dute, baldin eta hari edo Udalari lotuta badago harreman juridiko-administratiboagatik edo lan harremanagatik. Aipatutako baldintzak betetzen dituen eskolako administrazio eta zerbitzuetako langile orok hautesle eta izaera hautagarria du. | a) El representante del personal de administración y servicios, cuando haya más de un elector de este colectivo, será elegido por el personal que realice en el Centro funciones de esta naturaleza, siempre que esté vinculado al mismo o al Ayuntamiento, por relación jurídico-administrativa o laboral. Todo el personal de administración y servicios del Centro que reúna los requisitos indicados tiene la condición de elector y elegible. |
| b) Hautesle bakoitza dagoen kasuetan, hura izango da Eskola Kontseiluko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria. | b) En los casos en que exista un solo elector, será éste el representante del personal de administración y servicios en el Consejo Escolar. |
| c) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria hautatzeko, boto zuzeneko, sekretupeko eta eskuordetu ezinaren bidez egingo da, hauteskunde prozesu orokorra egiteko ezarritako hauteskunde mahaian, baina xede horretarako bereizitako hautetsontzi batekin. | c) Para la elección del representante del personal de administración y servicios, la votación se realizará mediante sufragio directo, secreto y no delegable ante la mesa electoral establecida para realizar el proceso electoral general, pero con urna separada a tal efecto. |
| **10. artikulua.** Botoak zenbatzea eta aktak egitea. | **Artículo 10.** Escrutinio de votos y elaboración de actas. |
| a) Hauteskundeen ekitaldi bakoitzean, bozketa amaitzen denean, dagokion mahaiak botoak zenbatuko ditu. Haiek zenbatu ostean, publikoa izanik, mahaikide guztiak sinatutako akta egingo da; bertan, hautatutako ordezkariak jasoko dira eta aurkeztutako hautagai bakoitzaren izena eta zenbat boto lortu dituzten. Akta Hauteskunde Batzordeari bidaliko zaio, hautatutako hautagaien berri emateko. | a) En cada uno de los actos electorales, una vez finalizada la votación, se procederá por la mesa correspondiente al escrutinio de los votos. Efectuado el recuento de los mismos, que será público, se extenderá un acta, firmada por todas las personas que componen la mesa, en la que se hará constar las representaciones elegidas, y el nombre y el número de votos obtenidos por cada una de las candidaturas presentadas. El acta será enviada a la junta electoral del centro a efectos de la proclamación de las distintas candidaturas elegidas. |
| b) Bozketetan berdinketaren bat badago, hautaketa zozketa bidez erabakiko da. | b) En los casos en que se produzca empate en las votaciones, la elección se dirimirá por sorteo. |

OIARTZUNGO UDALA

| | |
|---|---|
| **11. artikulua.** Hautetsiak izendatzea eta erreklamazioak.<br>a) Hautetsiak izendatzeko ekitaldia Eskolako Hauteskunde Batzordeak egingo du, mahaiak egindako zenbaketaren ostean eta aktak jaso eta gero. Hautetsiak izendatzeko gaiari buruz batzorde horrek hartutako erabakien aurka ohiko errekurtso arrunta jarri ahalko da eskola atxikita dagoen udal arloko zinegotziaren aurrean, eta haren ebazpenak amaiera emango dio administrazioko bideari.<br><br>**12. artikulua.** Eskola Kontseilua eratzea.<br>a. Hamar eguneko epean, hautetsiak izendatzen direnetik zenbatzen hasita, zuzendariak Eskola Kontseilu berria eratzeko saioa deituko du, ahal bada. Ezinbesteko kasuan halakorik ezin bada egin, eratzeko saioa kontseiluko kideak izendatzen direnetik 30 eguneko epearen barnean egingo da.<br><br>b. Hezkuntza-komunitateko sektoreetako batek Eskola Kontseiluan bere ordezkariak hautatuko ez balitu, sektore horri egotzi ahal litzaizkiokeen arrazoiengatik, egoera horrek ez du aipatutako kide anitzeko organoaren eraketa baliogabetuko. Xede horretarako, dagokion zinegotziak hura eratzeko neurri egokiak hartuko ditu.<br>**13. artikulua.** Eskola Kontseiluaren funtzionamendu araubidea.<br><br>Eskola Kontseiluko bilerak egingo dira, ahal den neurrian, kide guztiak bertan izatea ahalbidetzen duten egun eta ordutegian. Ohiko bileretan, zuzendariak, egoki iruditzen zaizkion bideak erabiliz, deialdia eta eztabaidatzeko dokumentazioa bidaliko ditu eta, hala badagokio, haren onarpena. Zuzendariak deialdi hori Eskola Kontseiluko kide guztiei bidaliko die, astebete lehenago gutxienez. Aparteko deialdiak egin ahalko dira ere, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago, jorratu beharreko gaiek hala egitea eskatzen badute.<br><br>a. Eskola Kontseilua hiru hilean behin bilduko da gutxienez, edota zuzendariak edo gutxienez kideen heren batek deitzen | **Artículo 11.** Proclamación de candidaturas electas y reclamaciones.<br>a) El acto de proclamación de las candidaturas electas se realizará por la junta electoral del centro, tras el escrutinio realizado por la mesa y la recepción de las correspondientes actas. Contra las decisiones de dicha junta en materia de proclamación de miembros electos se podrá interponer recurso ordinario ante el concejal del área municipal en el que se haya adscrita la escuela y cuya resolución pondrá fin a la vía administra.<br><br>**Artículo 12.** Constitución del Consejo Escolar.<br>a. En el plazo de diez días, a contar desde la fecha de proclamación de las integrantes electas y electos, la dirección convocará, si es posible, la sesión de constitución del nuevo Consejo Escolar. En caso de no ser posible por circunstancias de fuerza mayor, la sesión de constitución se realizaría dentro del plazo de 30 días desde el día de la proclamación de los y las integrantes del consejo.<br>b. Si alguno de los sectores de la comunidad escolar no eligiera a sus representantes en el Consejo Escolar por causas imputables a dichos sectores, este hecho no invalidará la constitución de dicho órgano colegiado. A tal efecto, el concejal correspondiente adoptará las medidas oportunas para la constitución del mismo.<br><br>**Artículo 13.** Régimen de funcionamiento del Consejo Escolar.<br>Las reuniones del Consejo Escolar se celebrarán en el día y con el horario que posibiliten, en la medida de lo posible, la asistencia de todas y todos sus miembros. En las reuniones ordinarias, la dirección enviará mediante los medios que considere oportunos, la convocatoria y la documentación que vaya a ser objeto de debate y, en su caso, aprobación. La dirección enviará dicha convocatoria a todos los miembros del Consejo Escolar, con una antelación mínima de una semana Podrán realizarse, además convocatorias extraordinarias con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas, cuando la naturaleza de los asuntos que haya de tratarse así lo aconseje.<br>a. El Consejo Escolar se reunirá, como mínimo, una vez al trimestre y/o siempre |

| | |
|---|---|
| duen aldi guztietan. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bat egitea. Gainera, Eskola Kontseiluko bileretara nahitaez joan beharko dute bertako kideek. | que lo convoque la dirección o lo solicite, al menos, un tercio de sus integrantes. En todo caso, será preceptiva, además, una reunión a principio de curso y otra al final del mismo. La asistencia a las sesiones del Consejo Escolar será obligatoria para todos sus integrantes. |
| **14. artikulua.** Eskola Kontseiluaren batzordeak.<br>a. Eskola kontseiluak Bizikidetza Batzordea eratuko du barne araudian zehaztutako eran, eta bertan izango dira zuzendaria, ikasketaburua, irakasle bat eta ikasleen guraso bat, sektoreetako bakoitzak hautatuak. Eskumenak barne araudian zehaztuta izango dira.<br>b. Bizikidetza Batzordeak Eskola Kontseiluari bizikidetzako arauen aplikazioari buruzko informazioa emango dio, eta harekin elkarlanean ariko da egokiak diren txostenak egiteko orduan. Gainera, Eskola Kontseiluari bere eskumen esparruaren barnean agindutako guztiaren berri emango dio.<br>c. Eskola Kontseiluak beste batzorde batzuk eratu ahalko ditu barne araudian zehaztutako eran eta eskumenekin. | **Artículo 14.** Comisiones del Consejo Escolar.<br>a. El Consejo Escolar constituirá una Comisión de Convivencia en la forma en que se determine en el reglamento de régimen interior, en la que, estarán presentes la directora o el director, el o la jefa de estudios, un profesor y un padre o madre del alumnado, elegidos por cada uno de los sectores. Las competencias estarán especificadas en el reglamento de régimen interior.<br>b. La Comisión de Convivencia informará al Consejo Escolar sobre la aplicación de las normas de convivencia y colaborará con él en la elaboración de los informes que sean convenientes. Asimismo, informará al Consejo Escolar de todo aquello que le encomiende dentro de su ámbito de competencia.<br>c. El Consejo Escolar podrá constituir otras comisiones para asuntos específicos en la forma y con las competencias que determine el reglamento de régimen interior. |
| **15. artikulua.** Eskola kontseiluaren eskumenak.<br>Eskola Kontseiluak honako eskumen hauek izango ditu:<br>a. Hezkuntza proiektuko hobekuntzak edo zuzenketak proposatzea; nolanahi ere, Udalak eta enpresa kudeatzaileak edo Irakasleen Klaustroak irakaskuntzako plangintza eta antolaketari lotuta dituzten eskumenak errespetatu ahalko dira.<br>b. Helburu pedagogikoa duten gatazkak konpontzen eta zuzenketak ezartzen laguntzea, hain zuzen ere, Eskolako bizikidetza asko kaltetzen duten ikasleen jokabideei dagozkienak, ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauekin bat etorrita.<br>c. Eskolako programazio orokorra baloratzea klaustroari dagozkion irakaskuntza gaiak errespetatuz, nolanahi ere.<br>d. Eskolak beste ikastetxe batzuekin | **Artículo 15.** Competencias del Consejo Escolar.<br>El Consejo Escolar tendrá las siguientes competencias:<br>a. Proponer las mejoras o correcciones del proyecto educativo, sin perjuicio de las competencias que el Ayuntamiento y la Empresa Gestora o el Claustro de Profesorado tiene atribuidas en relación con la planificación y organización docente.<br>b. Colaborar en la resolución de los conflictos e imposición de las correcciones con finalidad pedagógica que correspondan a aquellas conductas del alumnado que perjudiquen gravemente la convivencia en el Centro de acuerdo con las normas que regulan los derechos y deberes del alumnado<br>c. Valorar la Programación General del Centro respetando, en todo caso, los asuntos docentes que competen al claustro.<br>d. Proponer ideas para la colaboración del |

kultura, hezkuntza eta laguntzeko helburuetan elkarlanean aritzeko ideiak proposatzea.

e. Eskolaren funtzionamendu orokorra eta bizikidetzako arauen aplikazioa aztertu eta baloratzea.
f. Eskolako errendimendu akademiko orokorraren bilakaera aztertu eta baloratzea.
g. Tokiko Udalbatzak, hezkuntza-komunitateak edo haren funtzionamenduari buruzko edozein txostenak Eskolari buruz egindako ebaluazioaren emaitzak aztertu eta baloratzea.
h. Eskolako jardueren memoriari eta jarduera orokorrari buruzko informazioa jasotzea.
i. Eskolak bere inguruneko erakundeekin zer harreman dituen jakitea.

Centro con fines culturales, educativos y asistenciales, con otros centros.

e. Analizar y valorar el funcionamiento general del Centro y la aplicación de las normas de convivencia.
f. Analizar y valorar la evolución del rendimiento académico general del Centro.
g. Analizar y valorar los resultados de la evaluación que del Centro realice la Corporación Local, la Comunidad Educativa o cualquier informe referente a la marcha del mismo.
h. Ser informado sobre la memoria de las actividades y actuación general del Centro.
i. Conocer las relaciones del Centro con las instituciones de su entorno.

## II. ERANSKINA. HILEKO KUOTAK ORDAINTZEKO PROZEDURAK

Hezkuntza-komunitateko kideek ondoko hauek bete beharko dituzte: Eskolako barne araudia eta barne araudi hau; Eskolako hezkuntza proiektua; eta Eskolako Zuzendaritzak unean-unean erabakitako araudi nahiz ebazpenak bete zein aplikatu izanaren ondoriozko betebehar guztiak ere.

Hezkuntza-komunitateko kide guztiek Eskolako hezkuntza proiektua eta barne araudi hau ezagutu eta errespetatu beharko dute, eta hari egokitu beharko zaizkio beren jarduerak, berezko eskubide eta askatasunak murriztu gabe.

Gurasoak dira beren seme-alaben heziketaren arduradun nagusiak, eta hezkuntza- komunitatean barnean daude. Musika Eskolan izena emateak honako hau dakar, inplizituki: Eskolako hezkuntza proiektua, proiektu kurrikularra eta existitzen diren beste edozein arlotako beste legeria eta araudiak aitortu, errespetatu, onartu eta betetzea, bai eta Eskolan bertan aplikagarriak direnak ere.

Ikasle guztiek eta beraz, beren guraso edo legezko tutoreek ere (adingabeen kasuan), OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAko barne araudiaren 38. artikulua betez, antolaketa nahiz pedagogiako

## ANEXO II PROCEDIMIENTO DE PAGOS DE CUOTAS MENSUALES

Las personas integrantes de la Comunidad Educativa están obligadas por el Reglamento de Régimen Interno del Centro y todas aquellas obligaciones que se deriven del cumplimiento y aplicación de ese Reglamento de Régimen Interno, del Proyecto Educativo del Centro, así como de las normativas y resoluciones que la dirección del Centro determine en cada momento.

Las personas integrantes de la Comunidad Educativa deben conocer y respetar el Proyecto Educativo de Centro y el Reglamento de Régimen Interno, al que habrán de adecuar, sin merma de los derechos y libertades que le son propias, sus actuaciones.

Los padres y las madres son los primeros responsables en la educación de sus hijos e hijas y forman parte de la comunidad educativa. La inscripción en la escuela de música lleva implícito el reconocimiento, el respeto, la aceptación y cumplimiento del Proyecto Educativo de Centro, el Proyecto Curricular y de cuantas otras legislaciones y reglamentaciones de cualquier ámbito y nivel existan y se apliquen en el mismo centro.

Todo el alumnado y, por ende, madres, padres o personas que tengan la tutoría legal en el caso de los menores de edad, y en aplicación del Art. 38 del RRI de la OIARTZUNGO

OIARTZUNGO UDALA

| | |
|---|---|
| egituratik zein barne araudi horretatik ondorioztatutako betebeharrak bete behar dituzte, bai eta gurasoei eragindako beste edozeinetatik ondorioztatutako betebeharrak ere, beren udalaren eta zerbitzuko enpresa esleipendunaren arteko kontratu harremanean oinarrituz.<br>Horren ondorioz, eta kudeaketa ekonomikoaren funtzionamenduko arrazoiengatik, honako hau xedatzen da:<br>a. OIARTZUNGO Udala, OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLAren titular izanik, Udal Musika Eskolan emandako irakaskuntza motei dagozkien tasetatik urtero jaso beharreko zenbatekoak xedatu eta erabakiko du, eta ikasleek, dagokien matrikulazio prozesuan, horiek ordaindu beharko dituzte.<br>b. Ikasleari hilabete hasieratan kobratuko zaio bere bankuko kontutik, ikasturtea amaitzen den arte (ikasleak izena eman duen udal musika eskolako hezkuntza eskaintzari dagokio kopuru hori). Ikasleak ordainketa hori egin beharko du.<br>c. Ikasle batek Musika Eskolan baja emateko epe muga hileko 15a da.<br>d. Baja eman arren, hiruhileko kuota ordaindu beharko dute.<br>e. Matrikula berria onartzea edo ez Eskolako titularraren eta kudeatzailearen diskrezionalitatearen mende geratuko litzateke, aurreko ikasturtean izandako egoera bereziak kontuan hartuta.<br>f. Ordaintzeke geratutako ordainagiriei dagokienez, Zuzendaritzak Administrazioaren txostena zabalduko luke, eta haren kopia interesdunari igorriko litzaioke. OIARTZUNGO Udaleko Zerga-bilketa atalari ere igorriko litzaioke, premiamenduzko prozesua hasteko, dagozkion errekarguekin eta legeak uzten eta zehazten dituen beste neurri batzuekin udal tasa hori kobratze aldera. | UDAL MUSIKA ESKOLA, deben cumplir las obligaciones que se deriven de la estructura organizativa, pedagógica y de ese RRI, como de cualquier otra derivada y de afectación a los padres y a las madres en base a la relación contractual entre su Ayuntamiento y la empresa adjudicataria del servicio.<br><br>En consecuencia y por motivos de funcionamiento de la gestión económica se determina que:<br>a. El Ayuntamiento de OIARTZUN, como Titular de la OIARTZUNGO UDAL MUSIKA ESKOLA, dispondrá y determinara anualmente las cantidades a percibir de las tasas correspondientes a los diferentes tipos de enseñanza que se impartirán en la Escuela Municipal de Música y a la que se acogerá el alumnado en el proceso de matriculación correspondiente.<br>b. El alumno o la alumna recibirá un cargo económico regular en su cuenta bancaria, a principios de cada mes, hasta finalizar el curso escolar y correspondiente a la oferta educativa a la que el alumno o la alumna se haya inscrito en la Escuela Municipal de Música. El alumno o la alumna deberá hacer frente a dicho pago.<br>c. La fecha límite para que cualquier alumno o alumna comunique la baja de la Escuela de Música es el día 15 del mes en curso.<br>d. Tendrán que abonar la cuota trimestral aun que se den de baja.<br>e. Quedaría a discrecionalidad de la persona Titular del Centro y de la persona gestora la admisión o no de la nueva matrícula por las especiales circunstancias incurridas en el curso anterior.<br>f. Respecto a los recibos impagados que quedaran pendientes, se abriría un informe administrativo por parte de la Dirección y se enviaría copia a la persona interesada. También se remitiría al Departamento de Recaudación Municipal del Ayuntamiento de OIARTZUN para que iniciase el proceso administrativo de apremio, con los consiguientes recargos y otras medidas que la ley permite y determina para hacer efectivo el cobro de esa tasa municipal. |